


BEZEROAK

Tech4all-ek bere bezeroak lau taldetan banatzen ditu: bigarren eskuko teknologiak erabiltzeko prest dauden bezeroak, gailuak jaurti beharrean konpondu nahi dituzten pertsonak, baliabide gutxi dituzten familiak eta azkenik, ingurumena zaintzeko kontzientzia dituztenak.

- Tech4all-eko zerbitzuak batez ere bigarren eskuko teknologiak erabiltzeko prest daudeneztat dira, hau da, aparatu teknologikoei bigarren bizitza eman nahi dieten pertsonentzat. Pertsona horiek badakite zer nolako garrantzitsua den gaur egunean birzklapena eta berrerabilera, horregatik Tech4all-engana etorriko dira ez dagoelako beste inor proiektu honen bezala natura ulertzen eta errespetatzen duenik.



- Tech4all-eko bezeroen bigarren taldean, gailuak bota beharrean konpondu nahi dituzten pertsonak daude. Horrela Tech4all-ek natura hondamendiaren geldiketaren alde egiten du, gailu elektronikoen berriak erosi beharrean, honek naturan ekartzen duen hondamendia kontuan hartuta, Tech4all-era eraman dezakete gailuak konpontzera. Bezero hauei edozein motatako gailu elektronikoak matxuratzen zaizkietenean, Tech4all-era joko dute gailua konpontzeko. Behin produktua konponduta, bezeroak produktuarekin geratzeko ahelmena izango du edo bestela Tech4all-ek erosiko dio eta honek salmentan jarriko du. Produktuak salmenta prezio baxuagoa izango du eta horrela hirugarren atalean ikusiko den bezala, errekurtso gutxi duten pertsonentzat ere bideratua izango da.



- Tech4all-eko azken bezeroen atalean, errekurtsio gutxi duten familiak daude. Tech4all-ek lehentasuna emango die diru laguntzak behar dituzten familiei, Tech4all-ek uste baitu familia hauek laguntza gehien behar dituztenak direla sozietatean. Horrela familia hauek ere ahalmena izango dute Tech4all-eko produktuak erosi ahal izateko prezio on batean.

